



OBRAK. Prozedura negoziatua publizitaterik gabe

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK	1
1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA	1
2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENENKO AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....	1
3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA	2
4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA.....	2
II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.	3
5.- ADJUDIKAZIOAREN PROZEDURA.	3
6.- ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.	4
7.- ESKAINTZAK AZTERTZEA, NEGOZIATZEA ETA EBALUATZEA.	6
III. ADJUDIKAZIOA.....	8
8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....	8
9.- BEHIN BETIKO BERMEA	10
10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENA	10
IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.....	12
11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK.....	12
12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA	12
V. KONTRATUA BURUTZEA	13
13.- KONTRATUA BURUTZEA	13
VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	21
14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA	21



ADMINISTRAZIOARI OBRAK EGITEKO KONTRATUA

ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIA.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA ALDERDI OROKORRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA, APLIKATUKO ZAIZKION ARAUAK ETA ADJUDIKATZEKO MODUA

1.1.- Kontratu honen xedea da Administrazioak onartutako proiektuko obrak egitea. Obrak agiri honen hasierako ezaugarrien taulako A) idatz zatian azaltzen dira.

1.2.- Obrak idatzitako proiektuaren arabera egingo dira (haren barruko memoria barnean dela); hau da, kontuan hartuko da proiektuan oinarritzko materialez eta obra unitateen elementuez ezartzen dena. Ondorio guztietarako, obren proiektua, administrazio baldintza partikularren agiri hau, ezaugarrien taula, baldintza teknikoen agiria eta horien eranskinak kontratu agiriak dira, eta halakoak diren aldetik alderdien eskubideak eta betebeharrak arautuko dituzte. Enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatzeko egintzan sinatu beharko ditu, onartzen dituela adierazteko.

1.3.- Kontratazioa honako xedapen hauetan ezartzen denari lotuko zaie: agiri hau; baldintza teknikoen agiria; 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoko kontratuena (horren bidez Espainiako antolamendu juridikora aplikatzen dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Zuzentarauak); 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (HAKLAO); Estatuaren obrak kontratatzeke administrazio klausula orokorren agiria (AKOA), abenduaren 31ko 3854/1970 Dekretuak onartzen duena; Estatu zein Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuak arautzen dituzten gainerako xedapen aplikagarri guztiak.

1.5.- Kontratua prozedura negoziatuaren bitartez adjudikatuko da; prozedura hori SPKLko 166 - 171 bitarteko artikuluek eta HAKLAOko edo horren ordezkoko arau xedapeneko artikulua egokiek arautzen dute.

2.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA, LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA LIZITAZIO OINARRIA. GEHIENEN AURREKONTUA ETA UNITATEKO PREZIOAK. KREDITUA EGOTEA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

2.1.- Kontratuaren balio zenbatetsia, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa eta lizitazio oinarria agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian zehazten dira.

Kontratuaren prezioa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada Administrazioaren beharrezko arabera, kontratuaren gehieneko aurrekontua eta unitateko prezioak agiri honetako ezaugarrien taulako B) idatz zatian agertzen direnak izango dira.

2.2.- Kreditu nahikoa dago kontratu honen burutzapenaren ondorioz Administrazioak edukiko dituen betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko; ezaugarrien taulako C) idatz zatiko aurrekontu aplikazioan zehazten da.



Adierazten bada gastu espediente baten izapidetze aurreratua dela, prestazioak egiten hasteko ezinbestekoa izango da ekitaldiko indarreko aurrekontu taldean kreditu egoki eta nahikoa egotea.

2.3.- Kontratuaren prezioa adjudikazioan ezarriko da; ezin da izan Administrazioak ezartzen duen lizitazio oinarria baino gehiago.

Ondorio guztietarako, honako hauek sartzen dira kontratuaren prezioan: enpresa kontratistak kontratatutako obra burutzeko egin beharreko gastu guztiak, zuzenekoak zein zeharkakoak; obren ikuskapenagatik eta zuzendaritzagatik ordaindu beharreko tasak eta indarreko xedapenen arabera aplikatu beharreko gainerako tasa guztiak; zerga eta lizentzia guztiak, udalenak, probintziakoak zein Estatukoak.

3.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

3.1.- Enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua betetzearren arriskuak.

3.3.- Prezioen berrikuspena bidezkoa denez zehazteko, ezaugarrien taulako D) idatz zatian ezartzen dena hartuko da aintzat. Berrikuspena bidezkoa ez bada, idatz zati horretan adieraziko da. Aldiz, prezioen berrikuspena bidezkoa bada, idatz zati horretan berrikuspenerako aplikatuko diren indizeak edo formula polinomikoak zehaztuko dira.

Prezioen berrikuspenaren araubide juridikoa SPKLko 103 - 105 bitarteko artikuluetan eta HAKLAOko 104., 105. eta 106. artikuluetan ezartzen da. Prezioen berrikuspenerako formulak urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuak onartzen ditu.

3.3.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen ez bada, kontratua burutzeko epealdia luzatzeak ez du inolaz ere berrikuspena eragingo, luzapenaren arrazoia Administrazioari egotzi ezean edo ezinbestekoa izan ezean (ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan ezartzen dira).

3.4.- Ezaugarrien taulan prezioen berrikuspena ezartzen bada, aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da bi baldintza hauek betetzea: kontratuaren zenbatekoaren ehuneko 20 gauzatuta egotea eta kontratua formalizatu zenetik bi urte igarota izatea. Beraz, ez gauzatze ehunekoa (ehuneko 20) ez kontratuaren iraupeneko lehen bi urteak, kontratuaren formalizaziotik zenbatuta, ezin dira berrikusi, SPKLko 103. artikuluan ezartzen den bezala.

4.- AGIRIAK, DOKUMENTAZIOA ETA INFORMAZIO OSAGARRIA

Administrazio baldintza partikularren agiria, baldintza teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa kontratatzailearen profilean eskuratu ahal izango dira; gainera, SPKLko 138.2 artikuluan aipatzen diren kasuetan, ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen den Administrazioaren zerbitzuaren bulegoetan eskuratu ahal izango dira jendaurreko ordutegian, eskaintzak aurkezteko epealdian.

Eskaintza aurkeztu aurretik enpresa interesdunek zerbitzu horretara jo ahal izango dute lizitazioaren inguruabar berezien berri jakiteko.

Kontratuaren adjudikazioaren eta formalizazioaren inguruko informazio guztiak eta Administrazioaren kontratu jardunaren inguruko datu eta informazio guztiak kontratatzailearen profilean agertuko dira, SPKLko 63. artikuluan ezartzen den bezala.



Kontratzailearen profila aztertzeko Administrazioaren atarian sartu behar da; atari aurrean aipatutako ezaugarrien taulako E) idatz zatian zehazten da.

II.– ENPRESA LIZITATZAILEAK ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN ZAIEN DOKUMENTAZIOA.

5.- ADJUDIKAZIOAREN PROZEDURA.

5.1. Eskaintza aurkezteko gonbidapena.

Kontratazio organoak kontratua burutzeko gauza diren hiru enpresari gutxienez eskatu behar die eskaintza, ahal dela.

Espedientean eskaintza aurkezteko gonbidapenen, jasotako eskaintzen eta eskaintzei emandako erantzunen berri agertu behar da.

Lehia sustatu beharrik ez dagoen kasuetan, kontratazio organoak eskaintza aurkezteko eskatuko dio kontratua burutzeko egokia den enpresa bati, eta berarekin negoziatuko du 7.2 klausulan zehaztutako alderdi teknikoak eta ekonomikoak.

5.2. Enpresa lizitatzailerak.

Kontratuaren lizitaziorako eskaintza aurkeztu ahal izango dute (aurrerago zehaztuko da nola) Espainiako eta atzerriko pertsona fisikoek zein juridikoek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, kontratatzea debekatuta ez badute SPKLko 71. artikuluan ezartzen denaren arabera, eta kaudimena eta lanbide gaitasuna edo gaitasun teknikoa frogatzen badituzte edo, SPKLk eskatzen duen kasuetan, behar den sailkapena badute.

Gainera, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzua egiteko eskatzen den enpresa edo lanbide gaikuntza eduki behar dute (ezaugarrien taulako F idatz zatian zehazten da).

Pertsona juridiko bat kontratu baten lizitaziora aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa da kontratuaren prestazioak haren helburuen, xedearen edo jardueren esparruan egotea estatutuen edo sorrera arauen arabera.

Kontratu bat sinatzeko kaudimena eta gaitasuna frogatu nahi dituen enpresa batek beste entitate batzuetara jo dezake (ez da kontuan hartuko haiekiko harreman juridikoa nolakoa den), haien baliabideak erabiltzeko. Horretarako, frogatu behar du kaudimena eta gaitasuna kontratuaren iraunaldi osoan edukiko dituela eta beste entitate horiek ez dutela debekatuta kontratazioa SPKLko 75. artikuluan ezartzen duenaren arabera.

SPKLko 69. artikuluekin bat etorritik berariaz erabazten diren aldi baterako enpresa elkarteek ere aurkez dezakete eskaintza. Elkarteko enpresa bakoitzak bere jarduteko gaitasuna, finantza eta ekonomia kaudimena eta gaitasun teknikoa edo lanbide gaitasuna frogatu behar ditu, eta horretarako ondoko baldintzetan adierazten agiriak aurkeztu behar ditu. Agiri pribatu batean eskaintza egiten duten enpresen izenak eta gainerako datuak adierazi behar dira, bakoitzaren partaidetza eta kontratuaren indarraldian elkartearen ordezkariak edukiko duen pertsona edo entitatea zehaztu behar dira, eta kideek adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko adjudikazioa jasoz gero. Agiri hori elkarteko enpresa guztien ordezkariak sinatu behar dute.



6.- ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA LIZITAZIORAKO ONARTZEKO ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA.

Lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistemari esker eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkez daitezke, agiriak bidali eta jaso daitezke, eta kontratuak sinatu daitezke. Sistema hori Administrazioaren atarian dago (ezaugarrien taulako E idatz zatian aipatzen da).

Eskaintzak aurkezteko lizitazio eta kontratazio elektronikoen sistema hori erabili behar da, XIII. eranskinean azaltzen diren jarraibideak aintzat hartuz. Ezaugarrien taulako I) idatz zatian aipatzen den epealdiko azken egunera arte egin ahal izango dira. Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Baldin eta, SPKLko hamabosgarren xedapen gehigarrian azaltzen diren kasuetan, ez badira nahitaez erabili behar baliabide elektronikoak eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, dokumentazioa administrazio kontratatzailearen erregistro orokorrean aurkeztu behar da (egoitza ezaugarrien taulako H idatz zatian zehazten da) edo postaz bidali behar da; hori ezaugarrien taulako I) idatz zatian zehazten den epealdiko azken eguneko arratsaldeko 14:30ak arte egin ahal izango da (azken egunean jendearen arretarako ordutegi berezia badago, eskaintzak eta eskaerak eguerdiko 12:30ak arte aurkeztu ahal izango dira erregistro orokorrean). Azken eguna baliogabea bada, epealdia hurrengo egun baliodunera luzatuko da.

Eskaintza eta atxikitako dokumentazioa postaz bidaliz gero, postetxean bidalketa egin den eguna frogatu behar da eta egun berean iragarri beharko da posta elektronikoz Ezaugarri Taulako E) atalean adierazitako helbidera, HAKLEOren 80. artikuluan jasotako moduan.

Bi baldintza horiek bete ezean, ez dira agiri horiek onartuko, baldin eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gero jasotzen badira. Epe hori igaro eta hurrengo hamar egunetan agiririk jaso ez bada, agiri horiek ez dira onartuko inondik inora.

Enpresa lizitatzailleak bi edo hiru gutun azaletan (A, B eta C, ezaugarrien taulako J idatz zatian ezarriz gero) aurkeztu behar du dokumentazioa, itxira. Honako datu hauek idatzi behar ditu denetan, erraz irakurtzeko moduan:

- a) lizitazioa
- b) enpresaren izena
- c) eskaintza sinatzen duenaren izen-abizenak, eta enpresan duen kargua

Gutun azalak nahitaez sinatu behar ditu enpresa lizitatzaillearen ordezkariak. Eskaintza aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartu duten enpresa batzuek aurkezten badute, denen ordezkariak sinatu behar dute.

6.1.- A GUTUN AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULEN BITARTEZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN INGURUKO DOKUMENTAZIOA. Eskaintza ekonomikoan lizitazioaren xede diren obrak burutzeko prezioaren zenbatekoa adierazi behar da. Aparteko partida batean zenbateko horri dagokion balio erantsiaren gaineko zergaren karga zehaztu behar da (eredua I. eranskinean).

Gainera, eskaintza ezaugarrien taulako M) apartatuan adierazten diren adjudikazio irizpideen arabera baloratzeko, modu automatikoan edo formula bidez, behar diren agiriak aurkeztu behar dira.



6.2.- B GUTUN AZALA: BALDINTZA TEKNIKOAK, BALIO JUDIZIOA EGINEZ APLIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI DAGOKIEN DOKUMENTAZIOA ETA GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA.

Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, gutun azal honetan honako dokumentu hauek sartu behar dira: ezaugarrien taulako M) idatz zatian ezartzen diren adjudikazio irizpideak (formula bidez ebaluatu ezin direnak) baloratzeko behar diren dokumentuak; baldintza teknikoaren agirian aipatzen diren gainerako dokumentu guztiak.

Ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezarriz gero, Administrazioak enpresa lizitatuzaileei eskatu ahal izango die kaudimena eta gaitasuna edo, behar denean, sailkapena frogatzeaz gainera kontratuaren xedea behar bezala burutzeko behar diren baliabide pertsonal eta material guztiak jar ditzatela (eskaintzan zehaztu behar dira, II. eranskineko ereduaren arabera).

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da enpresak emandako informazioaren konfidentzialtasunaren adierazpena, behar denean (eredua III. eranskinean).

Proposamena eta erantsitako dokumentazioa postaz bidaltzen badira, beste orri batean gutun azalaren edukiaren zerrenda zenbakitu bat agertuko da.

6.3.- C GUTUN AZALA: KONTRATATZEKO GAITASUNA. Gutun azal honetan lizitatuzailearen erantzukizunpeko adierazpena sartu behar da (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera), Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat datorrena eta esaten duena lizitatuzaileak betetzen dituela Arabako Foru Aldundiarekin kontratatzeke lege ezarritako baldintzak, kontratazioke ezaugarrien taulan eta administrazio baldintza partikularren agirian ezartzen direnak, SPKLko 140. artikuluan arautzen den bezala.

Enpresak beste enpresa batzuetara jotzen badu kaudimena, gaitasuna eta baliabideak ziurtatzeko, SPKLko 75. artikuluekin bat etorritik, haietako bakoitzak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du honelako kasuetarako behar den informazioarekin (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera).

Enpresa batzuek ALDI BATERAKO ENPRESA ELKARTEA eratzen badute lizitazioan parte hartzeko, elkarteko kide bakoitzak bere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar du (IV. eranskinean jasotako jarraibideen arabera). Horrez gainera, dokumentu batean aldi baterako elkarteko enpresen izenak eta inguruabarrak adierazi behar dituzte eta bakoitzaren partaidetzaren berri eman behar dute, ordezkari edo ahaldun bakarra nor den azaldu behar dute, eta adierazi behar dute konpromisoa hartzen dutela kontratua adjudikatuz gero aldi baterako elkartea formalki eratzeko, SPKLko 69.3 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik.

Agirian ezartzen bada kontratuaren xedea loteetan zatituko dela eta kaudimenaz (ekonomikoa eta finantzetako) edo gaitasun teknikoaz eta profesionalaz eskatzen diren baldintzak desberdinak badira lote batetik bestera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar da baldintza berak aplikatzen zaizkion lote edo lote talde bakoitzeko.

Lizitatuzailearen erantzukizunpeko adierazpenean, Europar Batasunak onartutako Europako kontratazio dokumentu bakarreko formulazio normalizatuarekin bat etorritik, enpresaren edo ABEEren helbide elektronikoa adierazi behar da, jakinarazpenak bidali ahal izateko, SPKLko hamabosgarren xedapenean ezartzen den bezala.

Gainera, gutun azal honetan sartu behar da lizitatuzailea enpresa talde bateko kidea delako adierazpena, behar denean (eredua V. eranskinean).



6.4.- Kontratua adjudikatu aurretik zein adjudikatu ondoren zein lanak egiten diren artean Administrazioak egiaztatu ahal izango du egia denez adierazten dena C gutun azaleko agirietan, enpresa adjudikaziodunak bere kontratatzeke gaitasunaz aurkeztu duen dokumentazioan eta, behar den kasuetan, ezaugarrien taulan burutzapen baldintza bereziak betetzen direla frogatzeko sartzen diren agirietan. Enpresak adierazitako datuak eta inguruabarrak gezurrezkoak izatea kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daiteke, kontratistari egotz dakiokeen hutsegitea baita, eta horrek behin betiko bermea galtzea ekar dezake edo, bestela, bermerik jarri ez bada, edo eratu beharrik izan ez bada, bermearen adinako kalte ordaina ordaindu beharra. Gainera, Administrazioari eragindako kalteak eta galerak ordaindu beharko dira, hain zuzen jarritako bermearen zenbatekoaz gorako kopurua.

6.5. Eskaintza aurkezteak berekin dakar:

- agiri honetako baldintza guztiak eta ezaugarrien taulan, baldintza teknikoan agirian eta kontratuko gainerako agirietan zehazten den guztia onartzea, inolako baldintzarik gabe eta salbuespenik aplikatu gabe.
- aurkeztutako datu guztiak egiazkoak direla eta kontratuaren xede diren prestazio guztiak kontratatzeke eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela berresten duen erantzukizunpeko adierazpena.
- kontratazio mahaiarentzako eta organoarentzako baimena, Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu bateko eragile ekonomikoan zerranda ofizialetan bildutako datuak aztertu ahal izateko.

Zuzenean zein zeharka (lotutako enpresen bidez) kontratu baten zehaztasun teknikoak edo hura prestatzeko agiriak idazten parte hartzen duten enpresek ezin izango dute lehiatu kontratu hori adjudikatzeko prozeduran, ez eta kontratazio prozedura prestatzeko lanetan kontratazio organikoari aholkuak ematen dizkieten enpresek ere, baldin eta jardun horren ondorioz lehia zapuzten bada edo enpresak onura bereganatzen badu gainerako lizitatzailerekiko lehia.

Enpresa lizitatzaille bakoitzak eskaintza bat bakarrik aurkeztu ahal izango du. Banako lizitatzailleek ezin dute aurkeztu beste parte hartzeko eskaintzarik aldi baterako enpresa elkarte batean. Arau hauek hausteak berekin ekarriko du aurkeztutako eskaintza guztiak ez onartzea.

Hala ere, ezaugarrien taulako L) idatz zatian aldaera batzuk aurkezteko aukera ezar daiteke. Hala gertatzen denean, aldaerak bertan zehazten diren elementuekin eta baldintzekin bat etorritik aurkeztu behar dira.

Horrelako kasuetan, ohiko eskaintza ekonomikoarekin batera proposatzen diren gainerako soluzioei dagozkienak ere aurkeztu behar dira; gainera, eskaintza ekonomikoan eskatzen diren datuak adierazi behar dira eta aldaeren justifikazioak aurkeztu behar dira.

Eskaintza aurkezteak berekin ekarriko du agiri honetan, ezaugarrien taulan, baldintza teknikoan agirian, eta gainerako kontratu agiri guztietan ezarritakoa onartzea, erabat eta salbuespenik gabe, eta horrekin batera baita aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta obra kontratatzeke eskatzen diren baldintza denak betetzen dituela berresten duen erantzukizunpeko adierazpena ere.

Eskaintza aurkeztu ondoren lizitatzailleak ezin izango du atzera egin, bidezko arrazoia daukala frogatu ezean.

7.- ESKAINTZAK AZTERTZEA, NEGOZIATZEA ETA EBALUATZEA.



7.1.- Kontratazio Mahaia. Ezaugarrien taulako K) idatz zatian ezarriz gero, Kontratazio Mahaia eratuko da jasotzen diren eskaintzak aztertzeko. Mahaiko kideak idatz zati horretan ezarriko dira.

Idatz zati horretan ezartzen ez bada, agiri honetan Mahaiaz egiten diren aipamen guztiak kontratua sustatzen duen zerbitzu teknikoaz egintzat hartu behar dira (ezaugarrien taulako E) idatz zatian aipatzen denaz).

7.2.- Eskaintzak aztertzea eta negoziazioa.- Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitutakoan, eta aurkeztutakoak aztertu ondoren, kontratazio organoak kontratua sustatu duen zerbitzu tekniko gaituko du kontratuaren prestakuntzari lotutako kontsultak eta negoziazioak hasteko enpresekin.

Ez dira negoziatuko kontratuaren xedearen gutxieneko baldintzak eta adjudikazio irizpideak.

Kontratazioa sustatu duen zerbitzu teknikoak askatasun osoarekin negoziatu ahal izango du kontratua enpresekin, eta kontratua behin betiko sinatzea edo ez sinatzea erabaki ahal izango du. Aldeetako batek negoziazioa hausteak ez du ekarriko kontratuaren aurreko erantzukizunik, beste aldearen onustea zapuztu ezean.

Kontratazio organoek ziurtatuko dute negoziazioan enpresa lizitatzaille guztiek tratu bera jasotzea. Zehatzago esanda, ez dute informazioa bereizkeriaz emango, hau da, ez dute utziko enpresa lizitatzaille batek besteen aldean onura eduki dezan.

Kontratazio organoek enpresa lizitatzailerekin negoziatuko dituzte ezaugarrien taulako M) idatz zatian adierazitakoekin lotuta aurkeztu dituzten eskaintzak, agiri honetan, lizitazioaren iragarkian eta izan litezkeen agiri osagarrietan adierazten diren irizpideetara egokitzeko, helburua eskaintza onena identifikatzea dela.

Kontratazio organoak negoziazioak bukatzea erabakitzen duenean, horren berri emango die enpresa lizitatzaille guztiei eta epealdi bat ezarriko die denei eskaintza berriak edo berrikusitako eskaintzak aurkezteko.

Nolanahi ere, kontratazioaren espedientean egindako gonbidapenak, jasotako eskaintzak eta hauek onartzeko edo ezesteko arrazoiak azaldu behar dira.

7.3.- Eskaintzen ebaluazioa.- Kontratazio Mahaia eskaintzak ebaluatuko ditu agiri honetako M) idatz zatian garrantziari eta ponderazioari dagokionez ordena beherakorrean idatzita dauden balorazio irizpideei jarraiki. Hala, egoki deritzon txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu eta bere proposamena egingo dio kontratazio organoari. Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzarik onena preziorik baxuena ematen duena izango da.

Balorazio irizpideen aplikazioaren ondoren bi eskaintza edo gehiago berdindurik gertatzen badira balorazio onenarekin, ezaugarrien taulako M) idatz zatiko irizpideak aplikatuko dira (bertan agertzen diren ordenan) berdinketa hausteko.

Irizpide horiek ezarri ez badira, adjudikazio irizpideak aplikatu ondoren hainbat eskaintza berdindurik gertatzen badira, SPKLko 147.2 artikuluan ezartzen diren irizpide sozialak hartuko dira kontuan kontratua adjudikatzen, bertan agertzen diren ordenan eta erreferentziatzen eskaintzak aurkezteko epealdiko azken eguna hartuta.



III. ADJUDIKAZIOA

8.- ESKAINTZEN SAILKAPENA ETA ADJUDIKAZIODUNA IZATEKO PROPOSATZEN DEN ENPRESA LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

8.1.- Kontratazio Mahaiak, SPKLko 150. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik, kontratazio organikoari bidaliko dio aurkeztu diren eskaintzetatik onartu direnak, goitik beherako ordenan sailkatuta, hautagaiekin kontsultak egin eta agirian edo iragarkian ezarritako kontratuaren baldintzak haietako batekin edo batzuekin negoziatu ondoren; horrekin batera adjudikazio proposamena eta akta ere bidaliko dizkio.

8.2.- Kontratua adjudikatzeko proposatzen den enpresa lizitatzailleak kontratua adjudikatu aurretik kontratazio organoari frogatu beharko dio badauzkala gaitasuna eta kaudimena frogatzen dituzten agiriak, administrazio baldintza partikularren agiriko 8.3 baldintzan eskatzen direnak, eta agiriok baliozkoak direla ere bai.

Eskaintzak aurkezteko epealdia amaitzen denean ebatziko da Administrazioarekin kontratatze eskatzen diren gaitasun eta kaudimen baldintzak betetzen direnez eta kontratatze debekurik dagoenez; hala bada, egoerak bere horretan jarraitu beharko du kontratua formalizatzen denean, hau da, baldintza horiek bete beharko dira eta ezin da egon kontratatze debekurik.

Aurrekoa betetzeko, zerbitzu egokiak eskaintzarik onena egin duen enpresa lizitatzaileri eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez ditzala honako hauek frogatzen dituzten agiriak, bai enpresa lizitatzaileri dagozkionak, bai gaitasuna eta kaudimena ziurtatzeko laguntza bila jotzen den enpresei dagozkienak: 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarrak; zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela (edo baimena eman kontratazio organoari frogagiriok zuzenean eskuratzeko); badauzkala ezaugarrien taulako J) idatz zatian ezartzen denaren arabera kontratua burutzeko behar diren baliabideak; agiri honetako 9. baldintzaren arabera behar den behin betiko bermea eratu duela.

8.3.- 140. artikuluko 1. idatz zatiko a) – c) bitarteko letretan aipatzen diren inguruabarren frogagiriak direla eta, bai enpresa lizitatzailleak bai hark gaitasunak ziurtatzeko erabiltzen dituen enpresek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskaera norberaren izenean edo ahaldun gisa aurkezten duenaren Nortasun Agiri Nazionala.

b) Pertsona juridiko diren enpresen jarduteko gaitasuna Merkataritza Erregistroan aurkeztutako eratze edo aldatze eskrituraren bidez egiaztatuko da, baldin eta aplikagarri dituen merkataritza legeek hala eskatzen badute. Beharrezkoa izan ezean, eraketa eskritura edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez egiaztatuko litzateke jarduteko gaitasuna; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar dituen egongo da zehaztuta eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialekoak izan beharko dute.

c) Besteren izenean ari direnen ahalordeen askiespenak. Enpresa lizitatzaillea pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar da. Ahalordea egintza jakin baterako eman bada, ez dago Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egon beharrik, Merkataritzako Erregistroaren Araudiko 94.5 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik.



d) Finantza eta ekonomia kaudimenaren eta gaitasun teknikoaren edo lanbide gaitasunaren frogagiriak eta, behar denean, enpresa edo lanbide gaitasunaren frogagiriak (ezaugarrien taulako F) idatz zatian azaltzen dira), Legeko 87. eta 88. artikuluetan ezartzen denaren arabera eta gutxieneko sailkapen eta kategoria talde edo azpitaldea kontuan hartuz, baldin eta kontratuaren xedea indarreko sailkapen talde edo azpitaldeetako batean badago (horretarako kontratuaren CPV kodea hartu behar da aintzat).

Lizitatuzaileen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta dauden enpresa lizitatuzaileek ez dute edukiko zertan aurkeztu aurreko idatz zatietan aipatzen diren agiriak. Salbuespen honek ziurtagiriaren bidez frogatzea daitezkeen kaudimen eta gaitasunari buruzko frogagiriak soilik hartzen ditu.

Aldi baterako elkarteak eratuta lehiatu nahi duten enpresek banaka aurkeztu behar dute aurreko idatz zatietan eskatzen den dokumentazioa.

Jatorrizko agiriak edo kopia kautoak aurkeztu behar dira, indarreko legeriarekin bat etorritik.

SPKLko 65 - 76 bitarteko artikuluetan eta 95. artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eta Kontratazio Mahaiak aurkeztutako ziurtagiriaren eta agiriaren inguruko argibideak eskatu ahal izango dizkie enpresei, edo beste batzuk aurkezteko; hala eginez gero, enpresek bost egun balioduneko epealdia edukiko dute eskaerari erantzuteko.

Atzerriko enpresek VI. eranskinean xedatzen dena bete behar dute.

8.4.- Arabako Foru Aldundiko kontratazio organoak, eskuragarri dauden datu bitartekaritzako plataformen bidez, adjudikazio proposamenaren xede den enpresa lizitatuzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak lortuko ditu, bai eta ekitaldi honetan jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoela egiaztatzen duen informazioa ere, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean.

Kontsulta hori osatzeko, enpresa hori zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).

Arrazoi teknikoengatik elkarrengarritasuna ezinezkoa bada, kontratazio organoak dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio adjudikazio proposamena jaso duen enpresa lizitatuzaileari:

- Lizitatuzailearen zerga egoitza dagoen lurraldeko zerga administrazioak emandako ziurtagiria eta zergapeko jarduerak egin dituen lurraldeetako zerga administrazioek emandakoak, lizitatuzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela frogatzen dutenak.
Lizitatuzailea merkataritzakoa ez den sozietatea bada, edo nortasun juridikorik gabeko entitatea, ziurtagiriak sozietatearen, entitatearen edo establezimenduaren titularrari buruzkoak izan behar dira.
Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharren ziurtagiria Administrazioak eskatuko du ofizioz.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren azken ordainagiria edo, jarduerari aribideko ekitaldian ekin bazaio, zerga horren matrikularen alta, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean. Gainera, zerga horretan baja eman ez zaiolako erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da (eredua VII. eranskinean).



- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria, lizitatzailleak haren kuoten ordainketak egunean dauzkala frogatzen duena.

Lizitatzailleen eta enpresa sailkatuen erregistro ofizial batean inskribatuta daudela frogatzen duen indarreko ziurtagiria dutela frogatzen dutenek ez dute edukiko zertan aurkeztu ziurtagiri hauek hura indarrean dagoen artean, baldin eta bertan azaltzen diren inguruabarrak aldatzen ez badira; kontratua formalizatzen duen agirian enpresak berariaz adierazi beharko du indarreko ziurtagiria daukala eta bertan azaltzen diren inguruabarrak ez direla aldatu. Nolanahi ere, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren matrikulan baja eman ez zaiola dioen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

8.5.- Aurreko 8.2 puntuan azaltzen dena ez bada betetzen ezarritako epealdiaren barruan, enpresa lizitatzailleak eskaintza bertan behera utzi duela pentsatuko da eta lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren ehuneko 3a eskatuko zaio (BEZ gabe) zehapen kontzeptuan; gero dokumentazio bera eskatuko zaio eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatzaileri.

9.- BEHIN BETIKO BERMEA

9.1.- Eskaintzarik onena aurkezten duen enpresa lizitatzailleak bermea jarri beharko du kontratazio organoaren esku: eskaintzako azken prezioaren ehuneko 5, gehienez, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe (ezaugarrien taulako O idatz zatia).

Kontratuaren zenbatekoa unitateko prezioen bitartez ezartzen bada, eratu beharreko bermearen zenbatekoa lizitazioaren gehieneko aurrekontuaren arabera finkatuko da, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

Kontratuko prezioak behin-behinekoak izanez gero, ehuneko finkatutako gehieneko prezioari aplikatuko zaio, balio erantsiaren gaineko zerga zenbatu gabe.

SPKLko 107.2 artikuluan arautzen diren kasu berezietan berme osagarria eskatu ahal izango da, ezaugarrien taulako O) idatz zatian ezartzen bada.

9.2.- Administrazioak enpresa lizitatzaileri eskatuko dio errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hamar egun baliodun pasatu baino lehen (edo bost, izapideak presaz eginez gero) aurkez dezala bidezko behin betiko bermea eratu duela frogatzen duen dokumentazioa.

Betekizun hau betetzen ez bada enpresari egotz dakioken arrazoi bategatik, Administrazioak ez dio adjudikatuko kontratua eta SPKLko 150.2 artikuluko azken paragrafoan xedatzen dena aplikatuko da.

9.3.- Bermea eratzeko SPKLko 108. artikuluan ezartzen diren bideak erabil daitezke, HAKLAOko 55. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren baldintzak beteta. Onartutako ereduak VIII., IX., X. eta XI. eranskinetan daude.

Behin betiko bermearekin SPKLko 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo zaie.

Bermeak itzultzeko eta kitatzeko SPKLko 111. artikuluan eta HAKLAOko 65. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da.

10.- ADJUDIKAZIOA ETA JAKINARAZPENEA

10.1.- Kontratazio organoak adjudikaziorako proposatzen den enpresa lizitatzailleak aurkeztutako dokumentazioa jaso ondoko bost egun baliodunetan adjudikatu beharko du kontratua (izapideak presaz eginez gero, ondoko hiru egun baliodunetan).



10.2.- Kontratuaren adjudikazioduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa bada, eskaintzak irekitzeko epealdia amaitu ondoren hamabost egun pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun pasatu baino lehen).

Kontratua adjudikatzeko hainbat irizpide hartu behar badira kontuan, edo aplikatzen den irizpide bakarra bizi zikloaren kostua ahalik txikiena izatea bada, eskaintzak irekitzen direnetik bi hilabete pasatu baino lehen adjudikatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, hilabete pasatu baino lehen), ezaugarrien taulako P) idatz zatian besterik ezarri ezean.

Eskaintza gutun azal batean baino gehiagotan aurkezten bada eta, beraz, bakoitza egintza batean ireki behar bada, aurreko epealdia B gutun azala irekitzen denetik zenbatuko da.

10.3.- Aurkeztutako eskaintzetako batek baldintzen agirietan eskatzen diren betekizun guztiak betetzen baditu, kontratua nahitaez adjudikatu behar da. Beraz, halako kasuetan kontratua ezin da utzi adjudikatu gabe.

Hala ere, SPKLko 152. artikuluan ezartzen denarekin bat etorritik, Administrazioak, kontratua formalizatu baino lehen, uko egin ahal izango dio adjudikatzeari herritarren interesak direla eta, edo bertan behera utzi ahal izango du izapidetutako prozedura, konponezineko akatsik gertatu bada. Batera zein bestera, enpresa lizitatzaileri konpentsazioa eman beharko die ezaugarrien taulako Q) idatz zatian ezartzen den bezala.

10.4.- Adjudikazioan arrazoiak azaldu beharko dira; baliabide elektronikoen bidez jakinaraziko zaie enpresa hautagai edo lizitatzaileri eta, gainera, kontratatzailearen profilean agertuko da hamabost egunez.

Jakinarazpenean adjudikazio prozeduran izan diren enpresek adjudikazio erabakiaren kontra ondo oinarritutako errekurtsioa aurkeztu ahal izateko behar den informazio guztia eman beharko da. Honako datu hauek zehaztu behar dira, hain zuzen:

- a) Baztertu diren enpresa hautagaiak direla eta, bazter uzteko kontuan hartu diren arrazoiaren laburpena.
- b) Adjudikazio prozeduratik kanpo utzitako enpresa lizitatzaileri dagokienez, eskaintza ez onartzeko arrazoiak, laburtuta, eta enpresa lizitatzaileren balorazioen banakapena (adjudikaziodunarena barne).
- c) Kasu guztietan, enpresa adjudikaziodunaren izena, beraren eskaintzaren ezaugarriak eta onartutako gainerako eskaintza guztiak gaituta kontratua berari adjudikatzea eragin duten onurak.

Jakinarazpenean eta kontratatzailearen profilean kontratua formalizatzeko epealdia zehaztu beharko da, SPKLko 153.3 artikuluan ezartzen den bezala.

Adjudikazioan behin betiko zehaztu eta finkatuko da kontratua.

10.5.- Aurkezten diren eskaintzak (bai onartzen direnak, bai ireki gabe baztertzen direnak, bai ireki ondoren ezesten direnak) lizitazioaren espedientearen artxibatuko dira.

Baldin eta, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian adierazitako kasuren bat betetzen delako, ez bada nahitaezkoa bitarteko elektronikoko erabiltzea proposamenak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko, behin kontratua ebatzi ondoren eta errekurtsioak aurkezteko



epeak errekurtsorik aurkeztu gabe igarotzen badira, proposamenekin batera doan dokumentazioa interesdunen eskura geratuko da. Urtebetean enpresa lizitatzailleek dokumentazioa eskatzen ez badu, ezabatu egin ahal izango da.

IV. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

11.- KONTRATUA FORMALIZATU AURREKO BETEBEHARRAK

11.1.- Behin betiko adjudikazioaren jakinarazpenaren hartu agiria jaso ondoren, enpresa adjudikaziodunak kontratua formalizatu aurretik ezaugarrien taulako R) idatz zatian aipatzen diren kontratuen polizen eta lehen primen ordainagirien kopiak aurkeztu beharko ditu. Enpresak bere kargura kontratatu behar ditu aseguru horiek eta bere kargura mantendu eraikuntza aldian eta berme aldian.

Aseguratutako mugak honako hauek izango dira: Administrazioak obra bakoitzerako zehazten dituenak obren ezaugarriak, ondoko eraikinenak, aurretik zeuden ondasunenak eta egoki deritzen gainerako egoeren ezaugarriak kontuan hartuz.

11.2.- Kontratua indarrean den artean kontratazio organoak enpresa kontratistari eskatu ahal izango dio erakuts diezaiola aseguruaren dokumentazioa edo, bestela, eman diezazkiola aseguru horien polizen kopiak edo ziurtagiriak, eta froga diezaiola primen ordainketak egunean dauzkala. Kontratistak eskatutako guztia egin beharko du, eta egiten ez badu, kontratazio organoak ziurtapenen ordainketa eta obrak onartzeko epealdia eten ahal izango ditu, bai eta, obrak jasota badaude, berme aldiaren konputuaren hasiera ere. Etenaldi hau ez da konputatuko kalte ordainen ondorioetarako. Gainera, eskaera ez betetzeak erantzukizunak sor ditzake.

12.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1.- Administrazioaren kontratuak lizitazioarekin guztiz bat datorren administrazio agirian formalizatu beharko dira. Kontratua aldi baterako enpresa elkarte bati adjudikatzen bazaio, enpresek 12.2 eta 12.3 idatz zatietan ezartzen den epealdian frogatu beharko dute ura eskritura publikoan eratu dela. Elkartearen iraupena kontratua azkendu artekoa izango da. Gainera, aldi baterako enpresa elkartearen IFZ aurkeztu beharko da.

12.2.- Kontratuaren adjudikazioaren kontra kontratazioaren arloko errekurtsio berezia aurkeztu ahal bada, ezin izango da formalizatu enpresa lizitatzailleei adjudikazioaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen.

Kontratazio organoak enpresa adjudikaziodunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik bost egun pasatu baino lehen (izapideak presaz eginez gero, hiru egun), aurreko paragrafoan ezartzen den epealdian kontratuaren formalizazioa etetea dakarren errekurtsorik aurkezten ez bada. Gauza bera egingo da errekurtsioa ebazteko eskumena daukan organoak etendura indargabetzen duenean.

12.3.- Gainerako kasuetan, enpresa lizitatzailleei adjudikazioa jakinarazten zaienetik hamabost egun baliodun pasatu baino lehen formalizatu beharko da kontratua (izapideak presaz eginez gero, zortzi egun baliodun pasatu baino lehen).

12.4.- Enpresa adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua aipatutako epealdian formalizatzen ez bada, Administrazioak lizitazioaren oinarritzko aurrekontuko ehuneko 3 eskatuko dio (BEZ kanpo) zehapen kontzeptuan; hori, lehenik eta behin, behin betiko



bermearen kontra ordainduko da, eratuta egonez gero. Gainera, SPKLko 71. artikuluko 2. idatz zatiko b) letran ezartzen dena aplikatuko da.

Kasu horretan, eskaintzen sailkapeneko hurrengo enpresa lizitatuileari adjudikatuko zaio kontratua, agiri honetako 8. baldintzan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren. Aurreko idatz zatietan ezartzen diren epealdiak aplikatuko dira.

12.5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, enpresa kontratistari atzerapenak eragiten dituen kalteen ordaina emango zaio.

12.6.- Kontratuari ezin izango zaio ekin formalizatu gabe dagoen artean, espedientea presaz izapidetzen denean izan ezik.

V. KONTRATUA BURUTZEA

13.- KONTRATUA BURUTZEA

13.1.- OBREN ZUZENDARITZA ETA IKUSKAPENA. Administrazioak obraren zuzendaritza fakultatiboaren ardura edukiko duen pertsona izendatuko du; hark lanak ikuskatu, egiaztatu eta zainduko ditu, kontratatutako obra behar bezala egin dadin.

Zuzendari fakultatiboak hainbat laguntzaile eduki ditzake agindupean bere lanak egiteko. Laguntzaileak beren titulu profesionalaren edo ezagutza berezien arabera ariko dira kontratuaren zuzendaritzan.

Kontratua formalizatzen denetik hamabost egun natural pasatu baino lehen Administrazioak kontratazio organoak izendatutako zuzendariaren berri emango dio kontratistari, eta zuzendariak gauza bera egingo du bere laguntzaileei dagokienez. Aldaketak idatziz jakinarazi beharko zaizkio enpresa kontratistari.

13.2.- KONTRATUA BURUTZEKO ARAU OROKORRAK

13.2.1- Obrak burutzea. Obrak agiri honetan eta administrazio baldintza orokorren agirian ezartzen denarekin bat etorri egin beharko dira, eta Administrazioak onartzen duen proiektuan ezartzen duenarekin eta obraren zuzendaritza fakultatiboak enpresa kontratistari ematen dizkion interpretazio jarraibideekin bat etorri ere bai.

Obren zuzendaritza fakultatiboak enpresa kontratistari ematen dizkion aginduak, jarraibideak eta berriemateak idatziz jaso behar dira 13.8 e) baldintzan aipatzen den aginduen liburuan; zuzendariak bere sinadurarekin baimendu beharko ditu.

Lanak egiten diren artean eta berme aldia amaitu arte enpresa kontratistak eraikuntzan sumatzen diren akats guztien erantzukizuna edukiko du.

13.2.2.- Lanen eta kalteen erantzukizuna. Enpresa adjudikaziodunak egiten dituen lanen eta ematen dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna edukiko du. Halaber, kontratua gauzatzean kontratistak hutsik edo okerrik egiten badu, metodo ezegokirik erabiltzen badu edo lanak gaizki egiten baditu eta ondorioz Administrazioak edo hirugarren batek kalterik jasaten badu, bera izango da erantzulea. Hirugarrenei egiten zaizkien kalteak bere kontura ordainduko ditu.



13.2.3.- Burutzeko epealdiak. Obra burutzeko epealdi orokorra ezaugarrien taulako S) idatz zatian zehaztuko da; epealdi partzialik, egonez gero, horiek ere bai.

Obrak gauzatzeko epealdiak zuinetaren egiaztapenaren akta sinatu eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen, baldin eta enpresa kontratistak erreserbarik egiten ez badu; bestela, erreserbarik egonez gero, kontratistari obrei ekiteko baimena emateko egintza formala jakinarazi eta hurrengo egunean hasiko dira zenbatzen. Izapidetzea presazkoa bada, kontratuari formalizatzen den egunetik hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio. Epealdi horretan kontratuko lanei ekiten ez bazaie, kontratua suntsiarazi ahal izango da, honako kasu honetan izan ezik: atzerapena ezin bazaie egotzi administrazio kontratatzaileari ez enpresa kontratistari eta horren berri ematen bada arrazoituta ebazpenean.

Kontratuaren epealdia indarreko legerian aipatzen diren kasuetan soilik luzatu ahal izango da, bertan ezartzen diren baldintzak betez gero.

13.3.- ZUINETAREN EGIAZTAPENA. Kontratuaren burutzapena zuinketa egiaztatzeko egintzarekin hasiko da; egintza hori kontratua formalizatzen denetik hilabete pasatu baino lehen egin beharko da.

Obren zuinetaren egiaztapena enpresa adjudikazioduna edo haren ordezkaria bertan dela egingo da, SPKLko 237. artikuluan eta HAKLAOko 139., 140. eta 141. artikuluetan ezartzen denarekin bat etorritik eta artikulua horietan arautzen diren ondorioekin.

Beraz, obrari ezin zaio ekin zuinetaren egiaztapenaren akta egin gabe, ez eta aktan arazoikotzat jotzen diren erreserbak jasotzen badira ere; horrelako kasuetan, obraren hasiera etengo da edo obra bera behin betiko etetea erabakiko da.

Kontratua suntsiarazteko arrazoiak dira zuinetaren egiaztapenean justifikatu gabeko atzerapena gertatzea eta Administrazioak lau hilabete baino aldi luzeagoa etetea obren hasiera.

Halaber, obra ezingo da hasi segurtasun eta higiene plana onartu gabe 1627/97 Errege Dekretuak zehazten duenaren arabera (dekretu horren bitartez eraikuntza obretako segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dira).

Zuinetaren egiaztapenaren akta eta lan programa (edukia geroago arautuko da) onartzen denean ezartzen diren epealdi partzialak kontratuaren osagaiak izango dira eta horren arabera eskatuko dira.

13.4.- EZINBESTEKO KASUAK. Ezinbesteko kasuetan enpresa kontratistak jasaten dituen kalte-galeren ordaina jaso ahal izango du, baldin eta zuzentzerik gabe jardun ez badu.

Ezinbesteko kasuak SPKLko 239. artikuluan arautzen dira. Kasu horiek HAKLAOko 146. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik izapidetuko dira.

13.5.- ZEHAPENAK KONTRATUAREN XEDEA GAIZKI EGITEAGATIK, ZATI BAT EZ EGITEAGATIK ETA ATZERATZEAGATIK. Kontratuaren xedea gaizki egiten bada, kontratua burutzeko ezarritako konpromisoak edo baldintza bereziak betetzen ez badira edo enpresa kontratistak kontratuan zehazten den prestazioetako baten burutzapen partziala betetzen ez badu berari egotzi ahal zaio arrazoi batengatik, zehapena ezarri ahal izango da, ezaugarrien taulako U) idatz zatian ezartzen bada.



Enpresa adjudikaziodunak kontratua burutzeko epealdia eta administrazioak zehaztutako epealdi partzialak bete beharko ditu.

Enpresa kontratistak ez badu betetzen aurreko epealdi horietako bat berari egotz dakioken arrazoi batengatik, Administrazioak bi aukera edukiko ditu: kontratua suntsiarazi edo zehapen ekonomikoa ezarri. Zehapenen zenbatekoak ezaugarrien taulako U) idatz zatian finkatu dira.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik gertatzen bada, SPKLko 195.2 artikuluan xedatzen dena aplikatuko da.

Nolanahi ere, enpresa kontratistaren atzerapena ezartzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aurretik interpelatzea ez hertsatzea.

13.6.- KALTE-GALERAK. Kontratuaren zati bat bete ez, kontratua akatsekin bete edo burutzapenean atzerapena gertatu eta, hala ere, zehapenik ezarri behar ez bada edo, horregatik ezarri beharreko zehapenak ez baditu estaltzen Administrazioari egindako kalteak, horrek kalte-galeren ordaina eskatuko dio enpresa kontratistari.

13.7.- ORDAINKETAK ENPRESA KONTRATISTARI. Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratuan ezarritako baldintzekin eta horien aldaketekin (egonez gero) bat etorritz egiten dituen obrak kobratzeko, itundutako prezioak aplikatuz. Ordainketak egiteko modua ezaugarrien taulako V) idatz zatian ezarriko da.

Ordainketarako, Administrazioak egindako obraren ziurtapenak emango ditu hilero, hileko lehen hamar egunetan, hain zuzen ere. Ziurtapenen ondorioz enpresa kontratistari egiten zaizkion ordainketak konturako ordainketak izango dira, eta azken neurketaren arabera zuzenketak eta aldaketak aplikatuko zaizkie. Ordainketek inolaz ere ez dute ekarriko berekin obrak onartzea ez jasotzea.

Abenduaren 30eko 67/2014 Foru Dekretuaren bidez foru administrazioiko fakturen kontabilitate erregistroa sortzen da eta hori izapidetzeko prozedura onartzen da. Bertan ezartzen dena betetzeko, enpresa kontratistak formatu elektronikoa aurkeztu beharko ditu fakturak horretarako berariaz ezarritako prozeduraren bitartez.

Egindako prestazioak kontratuan zehaztutakoarekin bat datoze frogatzen duten dokumentuen onarpen egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen ordaindu beharko du prezio Administrazioak; nolanahi ere, SPKLko 210. artikuluko 4. idatz zatian ezartzen dena aplikatuko da. Ordainketan atzeratzen bada, epealdia amaitu ondoko berandutze interesak ordaindu beharko dizkio enpresa kontratistari, bai eta kobrantza kostuen ordaina eman ere, abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezartzen duenarekin bat etorritz (horren bidez eragiketa komertzialetan berankortasunaren aurka egiteko neurriak ezartzen dira), SPKLko 198.4 artikuluan xedatzen den bezala.

Enpresa kontratistak ezarritako epealdia edo epealdiak betetzeko behar baino azkarrago egin ditzake kontratuko lanak, obraren zuzendaritza fakultatiboaren ustez hala jardutea desegokia izan ezean. Hala ere, urtero ezin jaso izango du urtekoaren zenbatekoa baino gehiago, adjudikazio koefizientea aplikatuta, egindako lanen edo emandako ziurtapenen zenbatekoa gorabehera.

Ezaugarrien taulako W) idatz zatian ezarritako gero, enpresa kontratistak konturako ordainketak jaso ahal izango ditu egindako prestakuntza eragiketengatik (obrarako instalazioak eta materialak edo makina astunak pilotzea). Ordainketa hauek egiteko modua eta bermeak SPKLko



198.3 eta 240. artikuluetan, HAKLAOk 155., 156. eta 157. artikuluetan eta administrazio baldintza orokorren agiriko 54 – 58 arteko baldintzetan ezartzen dira.

13.8.- ENPRESA KONTRATISTAREN BETEBEHAR ZEHATZAK ETA ESKA DAITEZKEEN GASTUAK. Kontratuaren araubide juridikoaren ondoriozko betebeharrak orokorrez gainera honako betebeharrak berezi hauek ere edukiko ditu kontratistak:

a) INGURUMENARI, GIZARTEARI ETA LANARI DAGOKIONEZ. Enpresa kontratatzaileak ingurumenari, gizarteari eta lanari dagokion indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, Europar Batasuneko zuzenbidean, nazio mailako zuzenbidean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarekin lotura duten ingurumen, gizarte eta laneko nazioarteko zuzenbide xedapenetan ezarrita daudenak, eta bereziki SPKLko V. eranskinean ezarritakoak.

Zehazki:

1. Eman beharreko prestazioak lan ordenantza edo hitzarmen kolektibo bati lotuta badaude, hitzarmen kolektiboan edo lan ordenantzan ezarritako xedapenak bete behar ditu.

2. Enpresak laneko arriskuen prebentziorako behar diren neurri guztiak ezarri behar ditu. Halaber, indarreko araudiak laneko arriskuak saihesteko ezarritako betebeharrak bete behar ditu eta honako betebeharrak bete dituela frogatu behar du kontratatutako jarduera hasi aurretik:

- Kontratatutako jarduerari dagokion prebentzio jardueraren arriskuak eta plangintza ebaluatzea.

- Kontratua betetzeko lanetan ariko diren langileei prebentzioari buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.

- Beharrezkoak diren banakako babes ekipamenduak eman direlako egiaztatzea.

3. Enpresak lan batzuk azpikontratatzeko baditu, azpikontratistei aurreko betebeharren egiaztapenak eskatu beharko dizkie eta administrazio kontratatzaileari eman beharko dizkie. Gainera, segurtasun eta osasun koordinatzaileari jakinarazi behar dizkie azpikontratazioak, lanei ekin aurretik.

4. Langileek lanean ari direla istripua izan edo kalteren bat jasanez gero, adjudikaziodunak indarrean dauden arauak xedatzen dutena bete behar du bere erantzukizunpean. Administrazioak ez du edukiko inolako erantzukizunik.

5. Legezko arau batek, hitzarmen kolektibo batek edo eraginkortasun orokorreko negoziatio kolektiboko akordio batek agintzen duela eta ezaugarrien taulako X) idatz zatian ezarritako gero, enpresa adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da laneko harremanetan eraginpeko langileei dagokienez. SPKLko 130. artikuluan ezartzen dena betetzeko, ezaugarrien taulan subrogazioaren eraginpeko langileen kontratuen baldintzei buruzko informazio guztia biltzen da.

b) LAN PROGRAMA. Ezaugarrien taulako AC) idatz zatian ezarritako gero, eta obra guztiz burutzeko urtebete baino gehia beharko dela aurreikusita badago, enpresa kontratistak



lan programa aurkeztu beharko du kontratua formalizatzen den egunetik edo obrak hasteko baimena jakinarazten den egunetik hogeita hamar egun pasatu baino lehen, eskaintzan aurkeztutakoa garatzen duen lan programa, hain zuzen.

Gainera, lan programak eranskin hau eduki behar du: lanak egiteko beharrezkotzat jotzen den lan taldea, kategoriaka zehaztuta; adjudikaziodunak bere plantillako langileen berri ere eman beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak aurkeztutako lan programa kontratuko dokumentua izango da ondorio guztietarako.

Kontratazio organoak aurkeztu ondoko hamabost egunetan ebatziko du lan programa: onartu egingo du, aldaketak sartuko ditu edo betekizun batzuk ezarriko ditu, kontratuaren klausuletan ezarritakoa eragotzi gabe.

Enpresa kontratistak aurkeztutako lan programa onartzen ez den bitartean proiektukoa izango da aginduzkoa edo, bestela, enpresa lizitatzailleak lizitazio fasean aurkeztutakoa.

Administrazioak erabaki ahal izango du obra ziurtagiriei biderik ez ematea enpresa kontratistak behar bezala lan programa aurkeztu arte, eta horrek ez du sortuko ziurtagiri horien ordainketan atzerapenagatiko interesak kobratzeko eskubidea.

c) KONTRATUA GAUZATZEKO EGIN BEHARREKO GASTUAK. Enpresa kontratistaren kargura izango dira zuinketa egiaztatzeko, zuzendaritzako, ikuskapeneko eta likidazioko lan fakultatiboak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, indarrean dauden xedapenen arabera (ordaintzeko modua eta zenbatekoa).

Gainera, enpresa kontratistaren kontura izango dira obra zuzendaritza fakultatiboak materialak eta obra unitateak egiaztatzeko eta probatzeko egin beharrezkotzat jotzen dituen lanek eragiten dituzten gastu guztiak, gehieneko kopuru honekin: obraren adjudikazio aurrekontuaren ehuneko 1.

Enpresa adjudikaziodunak obretarako ez beste udal baimen guztiak kudeatu behar ditu: aldarnioak jartzeko baimena, pasabide baimenak, hesiak jartzeko baimena, galtzadan hartuneak egiteko irekitzeko baimenak eta abar. Enpresa kontratistaren kontura izango dira horien guztien kudeaketak eta haien gaineko tasek eragiten dituzten gastuak, bai eta burutzapen gastuak ere.

Enpresa kontratistaren kontura izango dira instalazioek behar bezala eta legez ezarri den bezala funtzionatzeko behar diren altak eta jarduteko, sare eta zerbitzu loturak egiteko, behin-behineko hartuneak eta, oro har, gainerako lan guztiak egiteko baimenak lortzeko erakunde eskudunei aurkeztu beharreko proiektuak idaztea eta onartzea, eta egin beharreko kudeaketak, gastuak, tasak, arielak etab. Behin betiko hartuneak honetatik salbu daude eta erakunde kontratatzailearen kontura izango dira.

Enpresa kontratistak bere kontura hornitu behar ditu energia elektrikoa, ura, telefonoa eta obrak eta instalazioak egiteko behar diren zerbitzu guztiak. Zerbitzu hauen hornikuntzan indarrean dagoen araudia bete behar da.

d) SEINALIZAZIOA. Enpresa kontratistak bere kontura instalatu behar ditu obraren berri ematen duten kartelak, bai eta obra gunearen sarreren seinaleak, lanak egiten diren



eremuko zirkulazioa antolatzeko seinaleak eta obra lekuko zein inguruetako arrisku guneak adierazteko seinaleak ere.

e) AGINDUEN LIBURUA. Enpresa kontratistak aginduen liburua egin beharko du eta obran eduki beharko du beti. Obraren zuzendaritza fakultatiboak eta kontratuaren arduradunak erabili beharko dute, eta horiek bertan idatzi beharko dituzte obra lanetan gertatzen diren bisitak, gorabeherak eta aginduak.

Enpresa kontratistak jarraibideak jaso direlako agiria sinatu behar du, zuzenean edo eskuordetutako pertsona baten bitartez.

Obrak jasotzeko egintzan aginduen liburua behar bezala beteta aurkezteko eskatuko da; egintza amaitutakoan Administrazioaren esku geratuko da.

f) HIZKUNTZA IRIZPIDEAK. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak eta egon litezkeen azpikontratistek kontratua gauzatzean bi hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) erabiltzen direla bermatu beharko dute, eta jarduera elebitasunarekin eta herritarren hizkuntza eskubideen errespetuarekin lotuta egon beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuetako xedapenekin, Euskararen Normalizatorako 10/1982 Legean, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetan jasotako xedapenekin bat etorritik.

13.10.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK. Enpresa kontratista adjudikaziodunak Administrazioak Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren gardentasunerako, herritarren parte hartzerako eta gobernu onerako otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauko III. kapituluko betebeharrak betetzeko egiten dituen informazio eskakizunei erantzuna eman beharko die, eta kontratua gauzatzean kontratuaren xedearekin lotutako izaera sozialeko eta ingurumeneko baldintzak eta bestelako baldintza bereziak aplikatu beharko ditu (horiek guztiak ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten dira).

13.11.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA. Kontratuaren lagapenerako SPKLko 214. artikuluan ezartzen dena aplikatuko da. Kontratuaren adjudikazioa daukan enpresak haren zati bat hirugarren batzuei azpikontratatu nahi izanez gero, SPKLko 215. artikuluan ezartzen dena bete beharko du, eta enpresa azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketak lege bereko 216. artikuluan xedatzen denarekin bat etorritik egin behar ditu.

Azpikontratazioaren gehieneko ehunekoa ezaugarrien taulako Y) idatz zatian zehaztuta egongo da; bertan ezarritik gero, enpresa lizitatuak eskaintzan honako datu hauek eman beharko dituzte: zenbat azpikontratatuko asmoa duten, azpikontratazioaren zenbatekoa, eta lanak gauzatzeko aginduko zaien enpresa azpikontratisten izenak edo profilak, gaitasun profesional edo teknikoko baldintzen arabera zehaztuta.

Edonola ere, kontratua adjudikatu ondoren, eta gehienez ere kontratua egiten hasten denerako, enpresa kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio organoari azpikontratuak egiteko asmoa duela, adierazi beharko du zenbat nahi duen azpikontratatu, zer enpresa azpikontratatu duen, nor den enpresa azpikontratatuen legezko ordezkaria (edo ordezkariak), eta harremanetarako datuak eman beharko ditu. Horrez gain, justifikatu egin beharko du enpresak behar besteko gaitasuna duela lanak egiteko, elementu tekniko eta giza baliabideei eta esperientziari dagokionez, eta baieztatu egin beharko du enpresak ez duela kontratatuzko debekurik, eta informazio hori kontratu nagusia gauzatzean aldatzen bada,



horren berri eman beharko du, bai eta enpresa azpikontratista berriei buruzko informazio berri guztia ere.

13.12.- KONTRATUA ALDATZEA. Kontratu hau interes publikoko arrazoiengatik aldatu ahal izango da bakarrik, ezaugarrien taulako Z) idatz zatian edo SPKLko 205. artikuluan ezartzen den bezala (kasuak eta modua), SPKLko 207. artikuluan arautzen den prozedurarekin bat eginez. SPKLko 242. artikulua eta HAKLAOko 158 - 162 bitarteko artikulua ere aplikatu beharko dira.

Kasu hauetan, kontratazio organoak erabakitako aldaketak derrigorrezkoak izango dira enpresa kontratistarentzat; hala ere, 205. artikuluan zehazten diren kontratu aldaketak ez dira derrigorrezkoak izango, horiek derrigorrezkoak izateko gertatu behar baita banaka edo batera kontratuaren hasierako prezioa ez aldatzea ehuneko 20 baino gehiago, BEZ kanpo.

Obraren zuzendaritza fakultatiboak proiektua aldatu behar dela uste badu, baimena eskatuko dio kontratazio organoari bidezko espedientea hasteko eta proposamena idatziko du; proposamenarekin batera aldaketa justifikatzen, azaltzen eta baloratzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

Aldaketa izapidetzeko obrak (batzuk edo denak) aldi batez eten behar badira eta horrek kalte handia egiten badio interes publikoari, kontratazio organoak behin-behinean obretan jarraitzea erabaki ahal izango du, zuzendaritza fakultatiboak egingo duen proposamen teknikoari lotuta, baldin eta aurreikusitako zenbatekoa kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino gehiago ez bada eta kreditu nahikoa eta egokia badago hura finantzatzeko.

Ez obren zuzendaritza fakultatiboak ez enpresa kontratistak ezin izango dituzte sartu ez egin aldaketak kontratuaren xede diren obretan, aurretik kontratazio organoak aldaketa eta haren ondoriozko aurrekontua onartu gabe.

Hala ere, aldaketa batzuk onarpena jaso gabe egin daitezke, hain zuzen ere benetan egindako unitateak aldatzea (proiektuko neurketetan ezarritakoak ez beste batzuk), baldin eta gastuaren gehikuntza kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 10 baino gehiago ez bada.

13.13.- KONTRATUA ETETEA. Honetaz SPKLko 208. artikuluan eta HAKLAOko 103., 170. eta 171. artikuluetan ezartzen dena aplikatuko da.

Kontratua aldi batez (zati bat edo dena) edo behin betiko eteten bada, etete akta egingo da (obren zuzendaritza fakultatiboak eta enpresa kontratistak sinatu behar dute) eta bertan honako datu hauek jaso behar dira: Administrazioak kontratua eteteko hartutako erabakia, etetea eragin duten inguruabarrak, lanen burutzapena zertan den eta eteteak ukitzen dituen kontratuaren zatiak.

Etetea erabakitzen denean, Administrazioak enpresa kontratistari jasandako kalte-galerak ordainduko dizkio SPKLko 208.2 artikuluan adierazitako arauekin bat eginez.

Administrazioak obrak zortzi hilabete baino aldi luzeagoa etetea kontratua suntsiarazteko arrazoa da.

13.14.- OBRAK ONARTZEA. Obren onarpena SPKLko 210. eta 243. artikuluetan, HAKLAOko 163. artikuluan eta hurrengoetan eta administrazio baldintza orokorren agiriko 71. baldintzan eta hurrengoetan zehaztutakoarekin bat etorritik egingo da.



13.14.1.- Enpresa kontratistak obra oso-osorik egindakoan, kontratuan ezarri bezala, kontratua betetzat joko da, Administrazioa ados badago.

Enpresa kontratistak, edo beraren ordezkariak, idatziz jakinarazi behar dio obren zuzendaritza fakultatiboari obrak amaitzeko aurreikusitako data, berrogeita bost egun baliodun lehenago gutxienez.

Obra idatzizko jakinarazpena egindakoan onartuko da, gehienez ere kontratua bukatu eta hilabete pasatu aurretik, edo ezaugarrien taulako AA) idatz zatian ezartzen den aldian.

Onarpen akta egingo da eta egintzan aritzen diren pertsona guztiek sinatu behar dute. Akta horretan obrak ondo eta kontratuan ezarri bezala dauden argitu behar da. Hala izanez gero, zuzendaritza fakultatiboak obrak jasotzat emango ditu, eta ondoren berme aldia hasiko da.

Obrak onartzeko moduan ez badaude, aktan adieraziko da, eta zuzendaritza fakultatiboak ikusitako akatsak adieraziko ditu eta jarraibide zehatzak azalduko ditu; gainera, horiek konpontzeko epealdia ezarriko du. Epealdi horretan enpresa kontratistak zuzenketak egiten ez baditu, beste epealdi luzaezin bat eman ahal izango zaio, edo kontratua suntsiarazitzat jo ahal izango da.

Ezaugarrien taulan obrak burutzeko epealdi partzialak ezarriz gero, Administrazioak onarpen partzialak egin ahal izango ditu.

Aparteko kasuetan, interes publikoa dela eta (arrazoiak azaldu behar dira) Administrazioak obrak okupatzea edo herritarren erabilerarako zerbitzuan jartzea erabakitzen badu, nahiz eta onarpen egintza formalik izan ez, halako egintzen berezko ondorioak sortuko dira aparteko inguruabarrak gertatzen direnetik, arauz ezarritakoarekin bat etorriz.

13.14.2.- Kontratazio organoak hiru hileko epealdia edukiko du onarpena egiten denetik egindako obren azken ziurtapena onartzeko. Ziurtapena enpresa kontratistari ordainduko zaio kontratuaren likidazioaren kontura.

13.15.- BERME ALDIA. Onarpen akta egiten denetik berme aldia hasiko da zenbatzen (ezaugarrien taulako AB) idatz zatian ezartzen da). Urtebetekoa izango da gutxienez, kasu berezietan izan ezik. Hala ere, obrak irauteko asmoarekin egin ez badira (zundaketak eta prospekzioak, esaterako), emaitza onik lortu ez badute edo artapenez gaindiko lanak eragiten badituzte (dragatzea), ez da eskatuko berme aldirik.

Berme aldian enpresa kontratistak obraren akats eta bizioen erantzukizuna edukiko du. Gainera, obra artatu eta zaindu behar du baldintza teknikoan agirian ezarritakoari eta obren zuzendaritza fakultatiboak emandako jarraibideei lotuta. Obraren gertatzen diren berezko kalteen erantzukizuna edukiko du.

13.16.- LIKIDAZIOA. Berme aldia amaitu aurreko hamabost egunetan obraren zuzendaritza fakultatiboak, ofizios zein enpresa kontratistak eskatuta, obraren egoerari buruzko txostena idatziko du, SPKLko 243.3 artikuluan eta HAKLAOko 169. artikuluan arautzen diren ondorioetarako. Hauek dira:

- Txostena aldekoa bada, enpresa kontratistak ez du geroztik inolako erantzukizunik edukiko, ezkutuko akatsengatikoz besterik, eta bermea itzuliko zaio (edo kitatu egingo da), kontratua likidatuko da eta, beharrezkoa bada, ordaindu gabe dauden betebeharrak ordainduko dira.



- Txostena aldekoa ez bada eta antzemandako akatsak obra lanen ondoriozkoak badira, hau da, ez badira erabilerak sortuak, berme aldia zuzendaritza fakultatiboak bidezko jarraibideak eman ahal izango dizkio enpresa kontratistari eraikitakoa zuzentzeko, eta horretarako epealdia ezarriko dio. Epealdi horretan enpresa kontratistak obrak artatzen jarraitu beharko du, eta ez du dirurik batere jasoko berme aldia luzatzeagatik.

Hala ere, obra berme aldia amaitutakoan narriatzen bada eraikuntzako ezkutuko akatsen erruz, hain zuzen ere enpresa kontratistak kontratua bete ez duelako, honek kalte-galeren erantzukizuna edukiko du hamabost urtean obra jasotzen denetik.

13.17.- KONTRATUA SUNTSIARAZTEA. Kontratua SPKLko 211. eta 245. artikuluetan ezartzen diren kasuetan suntsiaraziko da. Kontratua suntsiaraztea kontratazio organoak erabakiko du, ofizioz zein enpresa kontratistak eskatuta (entzunaldia bermatu behar zaio). Suntsiarazpenak SPKLko 212., 213. eta 246. artikuluetan, HAKLAOko 110 - 113 bitarteko artikuluetan eta 172. artikuluan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Ezaugarrien taulako U) idatz zatian kontratua ez betetzeagatik zehapenak ezarri ezean, burutzapen baldintza bereziak, ezaugarrien taulako X) idatz zatian zehazten direnak, kontratuaren ezinbesteko betebeharrak izango dira SPKLko 211.f) artikuluan ezartzen denaren ondorioetarako.

Era berean, kontratuaren ezinbesteko betebeharra izango da ezaugarrien taulako J) idatz zatian eskatutako giza baliabideak edo materialak nahikoak direla atxikitzeko konpromisoa.

Kontratua enpresa adjudikaziodunaren erruz suntsitzen bada, behin betiko bermea atxikiko zaio eta, gainera, bermearen zenbatekoak kalteak estaltzen ez baditu, kalte-galeren ordaina ere eskatuko zaio.

13.18.- KONFIDENTZIALITASUNA. Agiri honen xedea gauzatzeko Administrazioaren titulartasuneko fitxategietako datu pertsonalak eta tratamenduak erabili behar badira, entitate adjudikaziodunak tratatu beharreko datuen tratamenduaren arduradun gisa jardungo du, bat etorriaz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datuen babesarenak (DBEO), 28. artikuluan eta Estatuan hura garatzen duen araudiak xedatutakoarekin. Konfidentzialtasunari buruzko klausuletan arautuko da nola tratatu behar dituzten hirugarrenek datu pertsonalak. Entitate adjudikaziodunak bete beharreko agirien ereduak agiri honen XII. eranskinean daude.

Era berean, adjudikazioaren publikotasunari eta enpresa hautagai eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari buruzko SPKLko xedapenak albo batera utzi gabe, kontratazio organoak ezin izango du hedatu enpresek III. eranskinean konfidentzialtat (sekretu tekniko edo komertzialak direla eta) jotako informazioa. Hala, enpresak arrazoitu egin beharko du zergatik diren konfidentzialak.

VI. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

14.1.- Kontratazio organoaren eskumenak dira: kontratu administratiboak interpretatzea; kontratua betetzean sortzen diren zalantzak argitzea; kontratuak aldatzea interes publikoko arrazoiak direla eta; kontratua gauzatzeko enpresa kontratistari egotz dakiokkeen erantzukizuna



adieraztea; kontratua etetea; kontratua suntsiaraztea eta horren ondorioak zehaztea. Egiteko horietan SPKLk eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Administrazio publikoen kontratuen Legearen arautegi orokorra onartzen duenak, ezartzen dituzten mugak eta baldintzak aplikatuko dira.

Era berean, kontratazio organoak enpresa kontratistek kontratua burutzeko lanetan egindako jarduerak ikuskatzeko eskumena du, aurreko lege horretan ezartzen den bezala eta bertan zehaztutako mugen barnean.

Kontratazio organoak kontratuak interpretatzeko, aldatzeko eta ebazteko ahalmenez baliatuta ematen dituen erabakiak berehala bete beharko dira.

14.2.- Kontratu honen interpretazioaz, aldaketaz, suntsiarazpenaz eta ondorioez sortzen diren auziak kontratazio organo eskudunak ebatziko ditu. Honen erabakiek administrazio bidea agortuko dute, eta haien kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen legeak ezarritakoarekin bat etorrira, eta kontuan izanda interesdunek berraztertze errekurtsua jar dezaketela, 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz.

14.3.- SPKLko 44.2 artikuluan zehazten diren ekimenei buruz administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik kontratazioaren alorreko errekurtsu berezia jarri ahal izango da. Errekurtsu berezi horiek aztertzea eta ebaztea Arabako Foru Aldundiaren Kontratu Errekurtsoen Foru Organo Administratiboaren egitekoak dira (organo hori irailaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 44/2010 Foru Dekretuaren bidez sortu da).